



LH-4. MAILA
6. UNITATE DIDAKTIKOA
"Elkarbizitza berdintasunez"



LH4-6UD. ELKARBIZITZA BERDINTASUNEZ: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Bigarren zikloko unitate didaktiko guztien edukiak laburtzen eta txertatzen dira azken unitate honetan. Emakume eta gizon guztien giza eskubideekin eta berdintasunarekin bat datorren gizarte- eta familia-elkarbizitza lortu nahi dugu.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETA
<p>1. Elkarbizitza berdintasunez eraiki. Guztiok elkarri tratatu ona emanaz, harreman justuagoak edukiz, eguneroko bizitzan Giza Eskubideak aplikatuz. Berdintasunaren eta askatasunaren kontrako aurreiritziak, trufak, isekak, bazterkeriak eta indarkeriak identifikatu eta saihestu. Berdintasunaren eta askatasunaren aldeko jarrera, hitzak, eta portaerak identifikatu eta garatu.</p>	<p>1. Giza aniztasunaren altxorra. Pertsonaien ezaugarriak idazterakoan, aniztasuna dago ala denak oso antzekoak irudikatu dituzte? Modu positiboan eta baliotsuan jaso dituzte ezaugarri ezberdinak? Zeintzuk bai? Zeintzuk ez? Zergatik? Genero, arraza, kultura edo adinarekin lotutako estereotipoak eta aurreiritziak jaso dituzte? Aurreko guztia, neskek zein mutilek berdin? Zertan ez? Zergatik?</p>	<p>→ Berdintasunez elkarrekin bizi. Elkar zainduz, aniztasuna errespetatuz, pertsona autonomoak izanez, pertsona guztiak berdin baloratuz eta tratatuz, eta gatazkak indarkeriarik gabe gaindituz.</p> <p>→ Giza Eskubideen bizikidetza. Emakume eta gizon guztien Giza Eskubideekin, berdintasunarekin, duintasunarekin eta askatasunarekin bat datorren bizikidetza.</p>
<p>2. Eguneroko gertaera txikiak aztertu eta aldatu, hobetu, berdintasunaren ikuspegitik. Eguneroko ekintzak, hitzak, jarrerak, portaerak, beginadak, keinuak, isiltasunak, ohiturak, harremanak... Oka Berdearen sortzaileak bilakatu, berdintasun sortzaileak, berdinzaleagoak eta justuagoak.</p>	<p>2. Tratu onak egunez egun gauzatu. Identifikatu dituzte elkarbizitza hobetzeko portaerak? Zailtasunen bat egon da? Zein? Zergatik? Portaerak pertsonaiekin lotzerakoan eta beraiek egitekoak aukeratu dituztenean, neskek zein mutilek berdintsuak aukeratu dituzte? Ez? Zergatik?</p>	<p>→ Denok hobeto bizitzeko elkarbizitza. Elkarrekiko onarpena, errespetua eta arduraz, elkarrekin bizi diren guztien bizitza hobea izateko elkarbizitza.</p> <p>→ Giza Eskubideak gauzatzera bideratutako bizikidetza. Giza Eskubideak eguneroko bizitzan eta harremanetan sustatzen duen bizikidetza. Nor bere buruaren jabe izateko aukerak eta baliabideak bermatzen dituen bizikidetza.</p>
<p>3. Giza Eskubideak eguneroko bizitza eta harremanetan sustatzea. Bizitzaren esparru guztietan Giza eskubideak gauzatzea. Pertsona guztiak bizimodu duina lortu ahal izateko eta errealitatearen irakurketa eta aldaketa berdin zalea egiteko, berdintasunezko eta errespetuzko elkarbizitza egoerak eta portaerak, tratatu onak, identifikatu eta garatu.</p>	<p>3. Giza eskubideak denontzat esparru guztietan. Konturatu dira Giza Eskubideen Aldarrikapena bizitzaren arlo guztietarako proposamena dela? Fitxan jaso diren atalak ondo lotu dituzte Oka Berdearen (bizitzaren) esparru eta jarduerekin? Neskek zein mutilek berdin? Alderen bat egon da beraiek idatzitako beste jardueretan? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Norberaren bizimodua aukeratzeko eta aldatzeko elkarbizitza. Elkarbizitzaren aldaketak, zailtasunak, desadostasunak, krisialdiak, banaketak eta abar berdintasunez eta errespetuz bideratzen dituen elkarbizitza.</p>

→ Egunez egun, arlo guztietan, berdintasuna eta Giza Eskubideak denontzat.